DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetza
Cooperación
Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

# Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa
## Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko abenduaren 14an** / 14 de diciembre de 2017<br>**Udalbatza Aretoan**/ Salón de Plenos del Ayuntamiento<br>**16:00etan** / A las 16:00 horas |

**GAI ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | | |
|---|---|---|
| Kontseilu Sektorialen ebaluazio prozesua Partaidetza arlotik. | 1 | Proceso de evaluación de los consejos sectoriales desde Participación Ciudadana. |
| Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero (ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2017-09-21) | 2 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior. (ver el archivo adjuntos del borrador del acta de 21-09-2017) |
| Kontseiluko kide berrien aurkezpena:<br>- UNRWA Euskadi<br>- Bakerako Nazioarteko Brigadak (PBI) | 3 | Presentación de nuevas entidades:<br>- UNRWA Euskadi<br>- Brigadas Internacionales de Paz (PBI) |
| Lan Taldeetan eginiko lanaren aurkezpena:<br>- 2018ko diru laguntzak<br>- Laguntza humanitarioa eta larrialdietarakoa | 4 | Presentación del trabajo realizado en los Grupos de Trabajo:<br>- Subvenciones 2018<br>- Ayuda de emergencia y humanitaria |
| 2017 eta 2018ko diru laguntza deialdien egoeren berri ematea. | 5 | Informar sobre la situación de las convocatorias de subvenciones de 2017 y de 2018 |
| 2018ko aurrekontuak | 6 | Presupuesto 2018 |
| Galderak eta eskaerak. | 7 | Ruegos y preguntas. |
| Datozen ekitaldiei buruzko informazioa. | 8 | Información sobre próximas actividades. |

10740n XVII

## BILEREN PARTE HARTU DUTE:

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE (Duñike Agirrezabalaga) Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE (Duñike Arrizabalaga) Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | • EH-BILDU<br>• IRABAZI<br>• PP |
| **ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK**<br>ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL | • ADSIS<br>• ALBOAN<br>• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA<br>• ACCP<br>• BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ (PBI)<br>• CALCUTA ONDOAN<br>• CRUZ ROJA<br>• DERANDEIN ELKARTEA<br>• HAURRALDE FUNDAZIOA<br>• INTERED<br>• LUMALTIK<br>• MEDICUS MUNDI GIPUZKOA<br>• MUGARIK GABE<br>• MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK<br>• MUGENGAINETIk<br>• PROYDE-PROEGA<br>• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA<br>• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA<br>• TAU FUNDAZIOA<br>• UNRWA |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | • PSE-EE<br>• SETEM<br>• MUNDUBAT<br>• PAZ Y SOLIDARIDAD<br>• Pertsona fisikoa |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación<br>**Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social<br>**Lankidetza Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Cooperación<br>**Herritarren Partaidetza Zerbitzua**<br>Servicio de Participación Ciudadana |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 22 kide, jarraian adierazten direnez gain: udaleko 5 ordezkari tekniko (4 emakumezko eta gizonezko 1).<br>◦ **Emakumezkoak /** Mujeres = **15**<br>◦ **Gizonezkoak /** Hombres = **7**<br>22 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 5 personas (4 mujeres y 1 hombre). |
| **IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | **Lankidetza** - Cooperación:<br>Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471 lankidetza@donostia.eus |

## SAIOAREN BILAKAERA:
DESARROLLO DE LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **1.- Kontseilu Sektorialen ebaluazio prozesua Partaidetza arlotik.**<br><br>Bilkura hasi da eta Herritarren Partaidetza Zerbitzuko bi teknikariek aurkezpena egin dute, azalpenak emanez. Labur azaldu dute kontseiluen ebaluazioaren ideia, arautegi berriaren ondorioz sortu dena. Ikusle gisa etorri dira, Lankidetza Kontseilua ebaluatu ahal izateko. Urtarrilean inkesta bat egingo dute, bertaratuen iritziak biltzeko. Bilera bat egingo da emaitzak aztertzeko. | **1.- Proceso de evaluación de los consejos sectoriales desde participación ciudadana**<br><br>Se da inicio a la sesión con la presentación y explicación las dos técnicas del Departamento de Participación. Ellas explican brevemente la idea de la evaluación de los consejos surgida a raíz del nuevo reglamento. Están en calidad de observadoras para poder evaluar el consejo de cooperación. En enero pasarán una encuesta para pedir la opinión de las y los asistentes. Se convocará una sesión para compartir los resultados. |
| **2.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.**<br><br>Aurreko akta onartu da aldaketarik gabe. | **2.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.**<br><br>Se aprueba el acta anterior sin ninguna modificación. |
| **3.- Kontseiluko kide berrien aurkezpena:**<br><br>**- UNRWA Euskadi:** UNRWA – Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziako koordinatzaileak azaldu du nola sortu zen agentzia, nolako egitura duen, zer lan-ildo dituen eta zer argitalpen egiten diren. (Informazio gehiago eskuratzeko: *www.unrwa.es)*<br><br>**- Nazioarteko Bake Brigadak – PBI:** Erakundeko ordezkariak azaldu du erakundeak egiten duen lana; alegia, giza eskubideen alorrean lan egiteagatik mehatxatuta dauden pertsonei babesa eta laguntza ematea. Erakundeak zer herrialdetan lan egiten duen esan du, eta lan horren ardatzak ere azaldu ditu. (Informazio gehiago eskuratzeko: *www.pbi-ee.org*) | **3.- Presentación de nuevas entidades:**<br><br>**- UNRWA Euskadi:** La coordinadora de UNRWA (Agencia de las Naciones Unidas para las personas refugiadas de Palestina) explica cómo se creó la agencia, su estructura, líneas de trabajo, así como sus diversas publicaciones. (Más información en *www.unrwa.es)*<br><br>**- Brigadas Internacionales de Paz – PBI:** La representante de la entidad explica el trabajo de la entidad, que consistente en la protección y acompañamiento a las personas amenazadas por su labor en el ámbito de los DDHH. Indica los países en los que trabaja, y los ejes en los que se basa su labor. (Más información en *www.pbi-ee.org)* |
| **4.- Lan Taldeetan eginiko lanaren aurkezpena:**<br><br>**- 2018ko diru-laguntzak:** Tau Fundazioko ordezkariak azaldu ditu lantaldean adostutako aldaketa nagusiak (ikus *erantsitako dokumentua*):<br>• Aldaketak terminologian. Kontzeptu hauek sartu dira, besteak beste: gizarte eraldaketarako hezkuntza, eta kontsumo | **4.- Presentación del Trabajo realizado en los grupos de subvenciones**<br><br>**- Subvenciones 2018:** El representante de Tau Fundazioa presenta los cambios más significativos acordados en el grupo de trabajo (ver *documento adjunto*):<br>• Cambios en la terminología, incorporándose términos como: educación para la transformación social |

| | |
|---|---|
| eta ekoizpen arduratsua.<br>• Gida Planaren arabera egokitzeko prozesuan oinarriak ez dira asko aldatu; indarkeria eza aktiboak garrantzia galdu du oinarrietan, baina ez ezabatzea erabaki da. Hala eta guztiz ere, gai hori lantzeko prestakuntza-ikastaro bat egitea pentsatu da.<br>• Birformulazioa ebazpenaren ondoren egingo da.<br>• Udalak haztapenari buruz proposatutako aldaketa dela eta, lantaldean erabaki da orain arte bezala jarraitzea, hasiera batean proposaturiko aldaketarik egin gabe.<br>• Eskatutako bi sentsibilizazio jarduerak direla eta, adostu da zenbait baldintza eskatzea, hala nola ez daitezela barne jarduerak izan, ezta komunikazio ekintza hutsak ere.<br>• Interes bereziko arloen puntuazioetan egin diren aldaketak azaldu dira (giza eskubideen arloan indarkeria eza aktiboari dagokion puntuazioa sartzen da).<br>• Elikadura burujabetza sartu da, ekoizpenarekin eta kontsumoarekin lotuta.<br>• Kolektibo kalteberetan: arrazoi sozioekonomikoak aipatu ordez arrazoi soziokulturalak aipatzen dira.<br>• Sentsibilizazio eta ebaluazio arloan kendu egin da Bulegoari erakundearen ibilbidea Euskal Fondoarekin kontrastatzeko aukera ematen zion itema. | y consumo y producción responsable.<br>• En la adecuación al plan director, las bases no han cambiado demasiado; la No Violencia Activa ha perdido cierto peso en las bases, pero se ha decidido no eliminarla del todo. Aún así, se ha pensado hacer un curso de formación para trabajar el tema.<br>• La reformulación se realizará tras la resolución.<br>• Ante el cambio propuesto por el ayuntamiento relativo a la ponderación, en el grupo de trabajo se ha decidido seguir como hasta ahora, sin introducir los cambios propuestos.<br>• En cuanto a las 2 actividades de sensibilización requeridas, se acuerda exigir ciertos requisitos como que no sean actividades internas o simplemente acciones de comunicación.<br>• Se explican los cambios en las puntuaciones de las áreas de especial interés (en el Área Derechos Humanos entra la puntuación de No violencia Activa)<br>• Se ha introducido la soberanía alimentaria relacionada a la producción y el consumo.<br>• En Colectivos Vulnerables: se cambia "motivos socio-económicos" por "motivos socioculturales".<br>• En el apartado de Sensibilización y Evaluación se ha quitado el ítem de que el Negociado podía contrastar la trayectoria de la entidad con Euskal Fondoa. |
| TAU Fundazioak azaldu du taldeak adostutakoa biltzen zuen dokumentua bidali zitzaiola lantaldeari, kontrastatzeko, baina ez zutela ekarpenik jaso. Azken unean, Haurraldek ekarpen batzuk egin omen zituen, eta sailaren iritzia izan omen zen oinarrietan aldaketarik ez egitea, lantaldeak hartutako erabakiari jarraituz.<br><br>Haurraldek adierazi du oinarri berriek atzerakada dakartela genero ikuspegiaren aldetik. Gai horri buruzko eztabaida egin da. Azkenik, badirudi gaizki-ulertu bat izan dela, eta oinarrietan genero-ikuspegia aintzat hartzearen aldetik atzera ez dela egin ulertzen da. | Desde TAU Fundazioa se explica que se envió el documento con los acuerdos del grupo al mismo grupo de trabajo para su contraste y no hubo aportaciones. Pero que en el último momento Haurralde hizo una serie de aportaciones ante las que el departamento valoró que las bases siguieran igual, tal y como decidió el grupo de trabajo.<br><br>Haurralde expone que las nuevas bases suponen una marcha atrás en cuanto a la perspectiva de género. Se da un debate al respecto. Finalmente parece que ha habido algún malentendido y se entiende que no ha habido ningún retroceso en cuanto a la valoración de la perspectiva de género en las bases. |

| | |
|---|---|
| Interes bereziko arlo guztietako ekintzak jasotzen ez dituzten proiektuak ezin dira lagundu oinarri hauen arabera; eta bulegoburuak azaldu du nolakoa izan den departamenduak bi konponbide eskaintzeko prozesua. Baina, arazo honekin kezkatuta ez zegoenez, lantaldeak proposamena bertan behera utzi zuen, eta ondorioz orain arte erabilitako puntuazio baremo bera erabiltzen jarraituko da. | La jefa de sección aclara cómo fue el proceso por el que el departamento ofreció dos soluciones distintas al problema de que proyectos que no incluyan actividades de todas las áreas de especial interés no encajaran en estas bases, pero que el grupo de trabajo, por no tener esta preocupación, desechó la propuesta, siguiendo por lo tanto con los mismos baremos de puntuación utilizados hasta ahora. |
| **- Premiazko laguntza:** Gurutze Gorriko ordezkariak azaldu ditu helburu horretarako aurrekontuko partidarako gutxieneko irizpideei buruz lantaldeak hartu dituen erabakiak. Irizpide hauek adostu dira (ikus *erantsitako dokumentua*):<br>• Epea urte guztian zabalik, aurrekontuko partida agortu arte.<br>• Kudeaketa irizpideak: proiektu bat urtean, gutxienez, erakunde bakoitzeko.<br>• Zenbatekoa: 17.000 € gehienez proiektu bakoitzeko (baliteke urtearen amaieran handiagoa izatea, geratzen den aurrekontuaren arabera)<br>• Erakundeak bete beharreko baldintzak: hirian bertan egotea eta erregistratuta egotea.<br>• Neutraltasun printzipioaren bermea. | **- Ayuda de emergencia:** La representante de de Cruz Roja explica las decisiones adoptadas en el grupo de trabajo, por las que se establecen unos criterios mínimos para la partida presupuestaria destinada a este fin. Los criterios acordados son los siguientes (ver *documento adjunto*):<br>• Plazo abierto durante todo el año hasta finalizar partida presupuestaria.<br>• Criterios de gestión: máximo un proyecto por año y entidad.<br>• Importe: 17.000 € máximo por proyecto (a final del año podría ser superior en función del presupuesto restante)<br>• Requisitos de la entidad: actividad en la ciudad y estar registrada.<br>• Garantía del principio de neutralidad. |
| **5.- 2017 eta 2018 diru laguntza deialdien egoeren berri ematea.**<br><br>Behin betiko ebazpena Gobernu Batzarrean abenduaren 19an izatea aurreikusi da, eta ordainketa otsaila aldera egingo da ziurrenik. Dena dela, gogorarazten da aurten hasi behar dela proiektua.<br><br>Datorren urteari begira, aldaketak egingo dira, prozesuaren digitalizazioaren ondorioz. Dagokion unean xehetasun gehiago emango dira, baina aldaketa garrantzitsuenetako bat online formularioa izango da. Sailak helarazi ditu jada GGKEek formularioei buruz egindako ekarpen eta iradokizunak (orain arte betetzen zen formularioaren formatuari eutsi, askotariko softwareak kontuan izan…). Gogorarazi dute garrantzitsua dela eskatzen den guztiaren berri izatea formularioak betetzen hasi aurretik. Halaber, gogorarazi da, eskabidea bete ostean, online edo aurrez aurre aurkezteko aukera | **5.- Informar sobre la situación de las convocatorias de subvenciones de 2017 y 2018**<br><br>La resolución definitiva se prevé que pase por la Junta de Gobierno del 19 de diciembre y el abono se realizará seguramente hacia febrero. Pero se recuerda que el proyecto tiene que ser iniciado este año.<br><br>De cara al próximo año habrá cambios por la digitalización del proceso. Aunque en su momento se informará detalladamente al respecto, se adelantan que el cambio más significativos será el formulario on-line. Desde el departamento ya se han trasladado las aportaciones y sugerencias sobre formularios recogidas por las ONGD (mantener los formatos al rellenar del formulario utilizado hasta ahora, tener en cuenta los distintos software, etc.). Se recuerda que es importante conocer todo lo que se solicita antes de comenzar a rellenar los formularios. Se |

| | |
|---|---|
| izango dela. Beste aldaketa bat da lehendakaria bertaratu beharko dela, edo bestela, idazkariak egindako eskuordetzea duen pertsona. Herritar txartela ez da jada baliozkoa izango sinadura digitalerako.<br><br>Oinarriak otsailean argitaratuko dira, ahalik eta lasterren. | recuerda también que una vez rellenada la solicitud, se podrá presentar tanto on-line como de manera presencial. Otro cambio es que deberá personarse la presidenta o presidente o en su defecto una persona con una delegación realizada por la secretaría. Para la firma digital ya no servirá la tarjeta ciudadana.<br><br>Las bases saldrán en febrero, lo antes posible. |
| **6.- 2018ko aurrekontuak**<br><br>Aurrekontua negoziatzen ari da eta zuzenketa fasean dago.<br><br>Lankidetzako aurrekontuan egin diren aldaketei buruz hitz egin dute. Aurrekontua % 8,14 igo da, eta gorakada hori 4. kapituluko igoera handiena izan da.<br><br>Mugarik gabeko Ekonomistek zenbait galdera egin dizkiote Udalari: Zergatik da Donostiako Udala EAEko hiriburuetatik Lankidetzarako aurrekontu txikiena duena? Zergatik eutsi dio ehuneko berari azken hiru urteotan? Ehunekoak aintzat hartuta, nola liteke Donostiako Udalak Gasteizko Udalaren erdia jartzea? Bi hirietan koalizio politiko berberak daudela kontuan hartuta, nola liteke hau?<br><br>Erantzuna da negoziazio politikoen araberakoak direla aurrekontuak. 100.000 euro igo dira. Ez gaude Gasteizen parean, ez ordea aurreko legealdiko parean ere. Ehunekoari eusten zaio, zinegotziak ezin du agindu eman ezin duen ezer.<br><br>Mugarik gabeko ekonomistek adierazi dute, orobat, kezkagarria iruditzen zaiela gastu arruntaren igoera; puntu eta erdi egin du gora, eta joera hori egonkortzen ari da.<br><br>Adierazi duten beste alderdi bat da lankidetza zuzenaren ehunekoa (sailaren ekintza zuzenak + lankidetza zuzena) udal guztien arteko handiena dela. Hori pixkanaka jaitsi beharko litzateke. Giltzarria izango litzateke aurrekontuaren zenbateko osoa handitzea. Esan dute Udalak 600.000 euro gehiago jartzeko zuzenketa onartuko balu Gasteizen | **6.- Presupuesto 2018**<br><br>El presupuesto se está negociando y está en fase de enmiendas.<br><br>Se comentan los cambios que hay en el presupuesto de Cooperación que ha subido un 8,14% siendo el mayor aumento en el capítulo 4.<br><br>Desde Economistas Sin Fronteras se plantean varias cuestiones: ¿por qué el Ayuntamiento de Donostia es el que menos presupuesto destina a Cooperación entre los ayuntamientos de las tres capitales de la Comunidad Autónoma?, ¿por qué mantiene el mismo porcentaje los últimos tres años?, ¿cómo es posible que en porcentajes el Ayuntamiento de Donostia destine la mitad que Gasteiz siendo las mismas coaliciones políticas?<br><br>En respuesta se argumenta que depende de las negociaciones políticas. Se han subido 100.000 euros. No nos comparamos con Gasteiz, pero tampoco con la legislatura anterior. Se mantiene el porcentaje, y desde la concejalía no se va a prometer nada que no se pueda dar.<br><br>Desde Economistas Sin Fronteras expresan que les parece preocupante también el aumento del gasto corriente, que ha subido punto y medio y es como una tendencia que se va estableciendo.<br><br>Otro aspecto que señalan, son que el porcentaje de cooperación directa, (acciones directas del departamento + cooperación directa) es el más alto de todos los ayuntamientos, y debería disminuir progresivamente. La clave sería subir el monto total del presupuesto. Se dice que si el |

| | |
|---|---|
| eta Bilbon parean jarriko litzatekeela. | Ayuntamiento enmendase el presupuesto en 600.000 € más, se pondría a la par que Gasteiz y Bilbao. |
| Bilduko ordezkariak adierazi du zatikako zuzenketak egin direla. Kontua da ez atzera egitea; 0,39ra iristea lortu zen eta egoera horretara iristea proposatu da. | Desde Bildu se indica que han hecho enmiendas parciales. La cuestión es que no haya un retroceso, se llegó al 0,39 y se propone llegar a esa situación. |
| Lankidetzako zinegotziak kexa eta iradokizun guztiak onartu ditu, baina adierazi du ezin dituela promesa faltsuak egin. Parte hartu duten pertsonak gonbidatu ditu aurrekontuei buruzko gaurko bilerara joan daitezen, Ogasuneko zinegotziak haiek esan beharrekoa entzuteko. | La concejala de cooperación admite todas las quejas y sugerencias, pero indica que no puede hacer falsas promesas. Invita a las personas asientes a participar en la reunión de presupuestos de hoy para que el concejal de hacienda las pueda escuchar. |
| **7.- Galderak eta eskaerak.**<br><br>Ez da zalantzarik planteatu, ezta galderarik ere. | **7.- Ruegos y preguntas**<br><br>No hay ruegos ni preguntas |
| **8.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.**<br><br>Laster hasiko diren jarduerei buruzko informazioa eman dute. | **8.- Información sobre próximas actividades.**<br><br>Se comparte información sobre las actividades que darán comienzo próximamente. |